

Ale berri honek 22 artikulu interesgarri eta askotarikoak biltzen ditu eta, ikus-puntu desberdin horiek Altzaren argazkia eta haren sare soziala osatzen laguntzen digute.

Altzaren historiari buruzko informazioa ematen dute artikuluetakoz batzuk; beste batzuk, berriz, bizilagunekin izandako harremanen ondorioz aztarna utzi duten zenbait pertsona edo talde oroitzea dute xede.

Efemerideek ere badute lekua, bai eta oinarrizko kirolak, dibulgaziozko ibilbideek edo mendi zeharkaldiek ere. Artikulu horietan, halaber, literatura pasarte eta ekarpen pertsonal baliotsuak aurkituko ditugu.

Artikuluak idatzi dituztenek hautatutako hizkuntzan argitaratu dira, beti egin ohi dugun moduan; gehienak gaztelaniaz eta euskaraz daude idatzita, eta bakarra, galizieraz. Hala ere, artikulu batzuetako edukiaren laburpen bat erantsi da euskaraz.

Dokumentu eta argazki guztiak sartzeari ezinezkoa dela kontuan hartuta, ale honetako zenbait artikulutan QR irudiak erantsi dira lehen aldiz.

Kode horien bidez Altzako Tokiko Bildumaren datu-basera jo daiteke eta bertan dokumentazio guztia kontsultatu.

Altzako Tokiko Bilduma, Donostia Kulturak eta Altzako Historia Mintegiak sortutako dokumentazio zerbitzua da eta Altzako ondare dokumentala bildu, konserbatu eta ezagutzera ematea du helburu.

Dokumentu horiek guztiak, Casares Kultur Etxean kontsulta daitezke eta, era berean, funts horietako asko Internet bidez ere eskura daitezke altza.info web orrian.

Aurten 1.000 albiste baino gehiago katalogatu dira, gehienbat 1976aren ondorengoak, eta, horrela, hemeroteca honek jada 2.847 albistez osatutako funtsa du.

Horrenbestez, orain 15 urte abiatutako lanaren emaitzei ekarpen berri hau gehitu ondoren, bilduma honen bidez jada 10.000 fitxategitik gora daude kontsulta egiteko eskuragarri.

Aukera hau baliatu nahi dugu gonbita luzatzeko, Altzaren historia berreskuratu eta ezagutzera emateko helburuarekin bat egin dezazuen. Hartara, eskura duzuen materialaren berri emanez guztion artean gure ondare kulturala eraiki dezagun.

Izan ere, elkarlanari esker lortu da bilduma hau gure esparruan aitzindari izatea.

Azken 25 urteotan, 1988an lehen Hautsa Kenduz argitaratu zenetik, 15 taldek eta 103 egilek parte hartu dute 207 artikulu idatzita, eta, zalantzarik gabe, gure oroi-men kolektiboa eraikitzeke ekarpena egin dute guztiek.

Hautsa Kenduz argitalpenaren azken ale honek ziklo bat itxiko du, baina, halaber, bide bat irekita uzten du etorkizunari ilusioz begiratzeko, Altzatik zein Altzarako dudarik gabe sortuko diren ekimen berriak hartu, sustatu eta horiekin elkarlanean aritzeko.

DONOSTIA KULTURA

Este número viene cargado de interesantes y variados artículos, 22 en esta ocasión, que desde distintos puntos de vista nos ayudan a ir completando la fotografía de Altza y su red social.

Algunos de ellos nos dan información sobre su historia y otros son una invitación al recuerdo de personas o grupos cuya vinculación con sus vecinos y vecinas ha dejado huella.

Hay lugar también para las efemérides, para el deporte de base, los recorridos divulgativos o las travesías de montaña y entre sus contenidos podemos encontrar valiosos pasajes literarios y aportaciones personales.

Cómo siempre los artículos están publicados en el idioma en el que han sido escritos, en su mayor parte castellano y euskera, y uno en gallego. No obstante podemos encontrar en alguno de ellos un resumen preliminar sobre su contenido en euskera.

En este número, por primera vez, y ante la imposibilidad de incluir todos los documentos y fotografías relacionados, en algunos artículos se han incluido imágenes QR.

Estos códigos permiten enlazar con la base de datos de la Colección Local de Altza dónde se puede consultar toda esta documentación.

La Colección Local de Altza es un servicio de documentación creado por Donostia Kultura y Altzako Historia Mintegia con el objetivo de reunir, conservar y dar a conocer el patrimonio documental de Altza.

Estos documentos se pueden consultar en el Centro Cultural Casares y también se puede acceder a gran parte de los fondos en Internet por medio de la página web altza.info.

Durante este año se han catalogado más de 1.000 noticias, en su mayor parte posteriores a 1976, y de este modo esta hemeroteca pasa a contar con un fondo de 2.847 noticias.

Con esta aportación, sumada al trabajo realizado desde hace más de 15 años, en este momento se ofrecen ya, a través de esta colección, más de 10.000 fichas disponibles para consulta.

Queremos por tanto aprovechar para animaros a colaborar en este objetivo de recuperar y dar a conocer la historia de Altza, aportando el material del que dispongáis para ir así entre todas y todos construyendo nuestro patrimonio cultural.

Es de hecho gracias a la colaboración cómo se ha hecho posible esta colección que ha sido pionera en nuestro ámbito.

Durante estos últimos 25 años, desde 1988 en que se publicó el primer Hautsa Kenduz, han tomado parte a través de sus 207 artículos, 15 colectivos y 103 autores, que sin duda han contribuido a construir nuestra memoria colectiva.

Este último número de la publicación Hautsa Kenduz cierra un ciclo, pero deja abierto un camino que nos hace mirar al futuro con la ilusión de poder acoger, impulsar y colaborar en las nuevas iniciativas que surgirán sin duda desde y para Altza.

DONOSTIA KULTURA